



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Artearen Oinarriak II Fundamentos del Arte II

EAU 2023 USE

www.ehu.eus





Proba idatzi honek 3 galdera ditu, eta gehienez 90 minutuan egin behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bat bakarrik hautatu behar duzu garatzeko. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkina idazteko.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

En las dos primeras preguntas, se proponen dos opciones de las que sólo debes desarrollar una. En la última, hay un único texto para comentar.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.



1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Bi irudi proposatzen dira. Bat aukeratu ezazu, eta egin irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia eredu gisa erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: azter ezazu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (pinturaren kasuan, marrazkia, kolorea, argia, konposizioa, etab.; eskulturaren kasuan, ikuspuntuak, gainazal-kalitateak, konposizioa, etab.).
2. Interpreta ezazu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Identifika ezazu artelanaren gaia eta saia zaitetz haren esanahian sakontzen.
4. Erlazionatu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, argudia ezazu zer estilotako ezaugarriak ikusten diren hartan landuak eta saia zaitetz zehazten noiz egina den.



A irudia



B irudia




2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Jarraian, bi gai teoriko proposatzen dira. Aukeratu bat eta garatu ezazu teorikoki. Zenbait artelan proposatzen dira garapen teoriko horri oinarria emateko balio dezaketenak. Diskurtsoan haiei erreferentzia egitea baloratuko da.

A. Gai-proposamena: Azaldu erromantizismoaren sorrera eta bilakaera.



Eugène DELACROIX: *Argeleko emakumeak* (1832)



Caspar David FRIDRICH: *Pazko goiza* (1828-1835)




J. M. William TURNER: *Norham Castle, egunsentia* (1845)



B. Gai-proposamena: Esplicitatu nola jaio zen abstrakzioa abangoardia historikoetan eta zein izan ziren erreferentziazko artistak.



Vasili KANDINSKI: *Pintura hiru orbanekin* (1914)



Sonia DELAUNAY: *Aldibereko kontrasteak* (1913)



Kazimir MALEVITX: *56 zk. Suprematismoa* (1916)



3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik garrantzitsuenak eta erlazionatu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin zergatia argudiatuta.

Arte kontzeptual izena erabiliko dut ni sartuta nagoen arte-mota aipatzeko. Arte kontzeptualean, ideia edo kontzeptua da obraren alderdirik garrantzitsuenak. Artista batek arte-forma kontzeptuala erabiltzeak esan nahi du plangintza eta erabaki guztiak alde aurretik ezartzen direla eta exekuzioa gai mekanikoa dela. Artea egiten duen makina bihurtzen da ideia. Arte mota hau ez da, ez teorikoa, ez teorien argigarria; intuitiboa da, prozesu mental guztiekin konprometitua dago eta ez du inolako asmorik. Oro har, ez da egoten artistak eskulangile gisa duen trebetasunaren mende.

SOL LEWITT. *Arte kontzeptualari buruzko paragrafoak*, 1967.



1ª PREGUNTA (vale el 40% de la prueba-escrita): Se proponen dos imágenes. Elige una y coméntala. Es necesario seguir el guión que se propone como modelo.

Guión:

1. Análisis formal: analiza el lenguaje plástico que se emplea en la obra (en el caso de la pintura, dibujo, color, luz, composición, etc.; en el caso de la escultura, puntos de vista, calidades de la superficie, composición, etc.).
2. Interpreta cómo el autor ha utilizado esos recursos plásticos en la creación global de la obra.
3. Identifica el tema de la obra y trata de profundizar en su significado.
4. Pon en relación la obra de arte con el estilo o movimiento en el que se ubica historiográficamente, explica las características del movimiento que en ella ves representadas y trata de especificar en qué cronología crees que fue realizada.



Imagen A



Imagen B




2ª PREGUNTA (vale el 40% de la prueba-escrita): Se proponen dos opciones de tema. Elige uno y desarróllalo teóricamente. Se plantean varias imágenes que pueden dar pie al discurso. Se valorará que se haga referencia a ellas en el desarrollo.

Propuesta de tema A: Explica el surgimiento y desarrollo del romanticismo.



Eugène DELACROIX: *Mujeres de Argel* (1832)



Caspar David FRIDRICH:
Mañana de Pascua (1828-1835)




J. M. William TURNER:
Norham Castle, amanecer
(1845)



Propuesta de tema B: Explica el surgimiento de la abstracción en las vanguardias históricas y quiénes fueron sus principales cultivadores/as.



Vasily KANDINSKY: *Pintura con tres manchas* (1914)



Sonia DELAUNAY: *Contrastes simultáneos* (1913)



Kasimir MALEVICH: *Suprematismo nº 56* (1916)



3ª PREGUNTA (vale el 20% de la prueba-escrita): A continuación, se propone un fragmento de texto. Léelo, resume sus ideas más importantes y relaciona el texto con un estilo o movimiento artístico argumentando por qué.

Me referiré al tipo de arte en el que estoy involucrado como arte conceptual. En el arte conceptual, la idea o concepto es el aspecto más importante de la obra. Que un artista utilice una forma de arte conceptual significa que toda la planeación y las decisiones se establecen de antemano y que la ejecución es un asunto mecánico. La idea se convierte en una máquina que hace el arte. Este tipo de arte no es teórico ni ilustrativo de teorías; es intuitivo, está comprometido con toda clase de procesos mentales y no tiene propósito alguno. Por lo general, no suele depender de la habilidad del artista como artesano.

SOL LEWITT. *Párrafos sobre arte conceptual*, 1967.



ARTEAREN OINARRIAK II - FUNDAMENTOS DEL ARTE II

Zenbait gogoeta – Algunas reflexiones

- *Artearen Oinarriak* Artearen Teoria eta Historiako irakasgai bat da, baina sortzaileei zuzendua. Nahiz eta Giza Zientziak eta Humanitateen Batxilergoko *Artearen Historia* irasgaiarekin zenbait eduki partekatu, *Artearen Oinarriak* ikasten duten ikasleen profila ezberdina da eta baita ere irakasleek eta ikasleek bere irakasgaiari ematen dioten ikuspegia. *Fundamentos del Arte* es una asignatura de Teoría e Historia del Arte, pero destinada a creativos. Aunque comparte ciertos contenidos con la *Historia del Arte* del Bachillerato de Humanidades y Ciencias Sociales, el perfil de los alumnos que cursan *Fundamentos de Arte* es diferente y también el enfoque que el profesorado y el alumnado le dan a la asignatura.
- Aurretik aipatutako arrazoiarengatik, adibidez, artelanaren iruzkinean ez da eskatzen irudia edo bere autorea identifikatzea (egiten bada, positiboki baloratuko da noski, baina ez da ezinbestekoa), baizik eta irudiaren forma aztertzea, gaiaren inguruko gogoeta bat egitea eta mugimendu edo arte-estilo bati esleitzea argudiatuz zergatia. Por lo anteriormente mencionado, en el comentario de una imagen artística no se les pide que identifiquen el autor o título de la obra, sino que analicen su forma, hagan una reflexión sobre el tema y la adscriban a un movimiento o estilo artístico argumentando por qué.
- Era berean, gai-teorikoaren garapenean, irudiak pista bezala jartzen dira. Positiboki baloratuko da hauek garapenean integratzea, baina ez da ezinbestekoa haiei erreferentzia egitea. De igual modo, en el desarrollo teórico del tema, las imágenes que se facilitan pretenden ser pistas. Se valorará positivamente integrarlas en el discurso, pero no es indispensable hacer referencia a ellas.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Testuaren ariketak duen helburua da ikasleek sortzaile baten idazki bat ulertu eta bere testuinguruan kokatzeko gai izatea.

El objetivo del ejercicio sobre el texto es que el alumnado sea capaz de entender y situar en su contexto propio el escrito de un artista.

Ebaluazio-irizpide orokorrak - *Criterios de evaluación generales*

1. Eskatzen zaionari egokitu egiten da eta gaien zentratzen da.
Se ajusta al enunciado y se centra en el tema.
2. Zuzentasunez eta argitasunez espresatzen da, eta testu koherente eta egituratu bat egiteko gai da.
Se expresa con corrección y claridad, y es capaz de construir un texto coherente y estructurado.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
Argumenta sus afirmaciones.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoak erabiltzen du.
Utiliza el vocabulario específico de la materia.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak - *Criterios de evaluación específicos*

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

Comentario de una obra de arte: 4 puntos.

- Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren errekurtsu plastikoak identifikatu, aztertu eta koherenteki justifikatzen ditu eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.
Identifica, analiza y justifica coherentemente la presencia de recursos plásticos en la obra que comenta y cómo el artista los emplea.
- Artelanaren errekurtsu plastikoak eta bere esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.
Establece relaciones entre los recursos plásticos presentes en la obra y el significado de la misma.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Aztertu beharreko artelana sailkatu daitekeen mugimendu edo garaiarekin identifikatzen du (mugimenduz konfunditzen bada, esleipen koherente bat justifikatzen du) eta beraren estilo-ezaugarri bereizgarriak ezagutzen ditu.
Identifica el movimiento artístico o período al que pertenece la obra (si se confunde en la adjudicación del movimiento, argumenta una hipótesis coherente) y conoce rasgos diferenciadores de su estilo.
- Artelana eta historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu (mugimenduz konfunditu bada, hipotesi zorrotz eta koherente bat argudiatzen du): obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarriak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza garai eta espazioan kokatzen du...
Establece conexiones entre la obra de arte y el estilo o movimiento en el que se ubica historiográficamente (si se ha confundido en la adjudicación del movimiento, argumenta una hipótesis coherente y rigurosa): menciona las principales características del movimiento que reconoce en la obra, sitúa la obra en su tiempo y espacio de creación...

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu

Desarrollo de un tema: 4 puntos.

- Proposatzen zaion gaia edo arte-mugimenduaren ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
Identifica los aspectos más significativos del periodo o movimiento artístico que se le propone.
- Gaiaren inguruko beste aspektu esanguratsu edo nabarmenak ezagutzen ditu: kronologia, garatu zen lekua, artista bereizgarrienak...
Conoce otros aspectos significativos y sobresalientes sobre el tema que desarrolla: períodos, lugares donde se desarrolla, artistas relevantes...
- Azaltzen duen mugimendua, garaia edo artistak eta beste estilo, garai edo artisten arteko erlazioak bilatzen ditu.
Establece conexiones entre el movimiento o estilo que explica y otras etapas, movimientos, artistas...



- Bere diskurtsoan koherenteki aipatzen ditu erreferentziatzat eman zaizkion irudiak.

Referencia las imágenes que se le proporcionan en su discurso de manera coherente.

Testu-iruzkina: 2 puntu

Comentario de un texto: 2 puntos

- Testuaren gaia eta ideei nagusiak identifikatzen ditu.
Identifica el tema y las ideas principales en el texto.
- Testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko gai da.
Es capaz de resumir la información relevante del texto.
- Testuaren ideiak berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduarekin harremanetan jartzen ditu.
Establece relaciones entre las ideas que aparecen en el texto y el estilo o movimiento artístico al que hace referencia.
- Bere ezagutzetan oinarritutako irizpide koherenteak erabiltzen ditu testuaren edukiak eta berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduaren arteko loturak argudiatzeko.
Utiliza criterios coherentes apoyados en su propio conocimiento, para argumentar las relaciones entre el contenido del texto y el estilo o el movimiento artístico elegido.